

## OHAR OROKORRAK

### AZOKA SOLIDARIO ARRAKASTATSUA

LH6ko ikasleek EKlko 2. unitatearen harira, "azoka solidarioa" bikaina prestatu zuten. Bertan 1.516,55€ bildu zuten eta "HOTZ-ZARAUTZ" gobernuz kanpoko erakundearentzat izango da".

ZORIONAK egindako lanagatik eta mila esker gerturatu zineten guztiei.

### 2022-2023 – ZERBITZUAK – IZENA EMATEA

Ikasturtea amaitzear dago eta dagoeneko hasi gara 2022-2023 ikasturtearen zerbitzuetako antolaketarekin.

Honekin lotuta, gogorarazi nahi dizuegu;

- **NAHIZ ETA ZERBITZUEN URTEROKO ERABILTZAILEA IZAN, IZENA URTERO EMAN BEHAR DA.**
- **IKASLE BAKOITZEKO INPRIMAKI BAT BETE BEHAR DA.**

Izena emateko epea: **Ekainak 17.** Jarraian dituzue bete beharreko inprimakiak:

[JANGELA](#) [ZAINZA](#) [GARRAIOA](#)

### IKASTURTE AMAIERAKO ERAKUSKETA

Aurtengoa ere ikasturte berezia izan dugula kontuan izanda, ikasturte amaierako erakusketa ez dela egingo adierazi nahi dizuegu. Erakusketa honen helburua ikasturtean zehar egindako eskulanak erakustea baita eta zenbait mailatan ezin baitugu bermatu. Datorren ikasturtean berriz ere berrartuko da ekintza hau.

Baina badugu beste berririk ere. Orain artean egun horretan egiten zen emanaldian HH2tik LH2ra arteko ikasleek parte hartzen bazuten ere, aurtengoan maila guztietako ikasleek hartuko dute parte. Erronka handia bada ere, ederra izango da komunitatearen barruan ditugun ikasle guztiak elkarrekin emanaldian ikustea. Beraz animatu eta etorri ikustera!

## OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

**Ekainaren 14an**, asteartea, plazan ospatuko den urteko OHIKO BATZARRERAKO deialdia bidaltzen dizuegu. Beti bezala, bertan jorratzen diren gaiak denon interesekoak direnez parte hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

### **SALBATORE MITXELENA KOOP.ELK. OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA**

ORDUA: **17:30ean, LEHEN DEIALDIA**  
**18:00etan, BIGARREN DEIALDIA**  
**18:30etan, HIRUGARREN DEIALDIA**

LEKUA: **KOOPERATIBAKO EGOITZAN (PLAZAN (Maria Etxe-txiki kalea, 14)**

### **EGUNEKO LAN ZERRENDIA:**

1. Aurreko batzarreko onespén-txostenaren irakurtzea eta Lehendakariarekin batera 15 egun barru, Batzar honen akta onartuko duten bi bazkideen aukeraketa, nortzuk Idazkariarekin batera akta sinatuko duten.
2. 2021. ekitaldiko kudeaketa aztertzea, ikuskaritzaren iritzia azaltzea, urteko emaitzen banaketaren proposamena eta hala balegokio, onartzea.
3. 2022-2023 ikasturterako aldizkako ekarpenak eta, hala balegokio, onartzea.
4. Ikastolaren eraberritzea.
5. Batzordea.
6. Tolare
7. Galde-eskeak.

---

## IKASTOLAKO JAIA

Gogoratu, bihar elkartuko garela gure betiko lekuan, IKASTOLAKO JAIAN!

10:00etan hasiko gara ikasle guztien "**BIZI BIZITZA**" emanaldiarekin, eta jarraian primeran pasakodugu antolatu ditugun ekintza guztiekin.

Etorri, gozatu eta dastatu tabernan jarriko ditun pintxo, razio eta bokatekin!

Dron baten bitartez argazkiak aterako ditugula adierazi nahi dizuegu. Mila esker eta bihar arte!

---

### LH1

#### MARI GALTLAGORRIEN BILA

**Mari Galtlagorrien bila** programa Udaleko Hezkuntza sailak proposatzen du eta LH1eko hurrei zuzenduta dago. Helburu nagusia Zarauzko alde zaharreko monumentu esanguratsuenak ezagutzea da pista jolasa baten bitartez.

Goizez egiten den ekintza bat da eta egun bakoitzean LH-1eko talde batekin egiten da.

- LH 1A - Ekainaren 10ean
- LH 1B - Ekainaren 9an
- LH 1C - Ekainaren 6an

Aipatzekoak:

- Ohiko ordutegia mantentzen da
- Arropa eta oinetako egokia.
- Hamaiketakoa, jolasaren erdialdean haurrak beraien hamaiketakoa jateko aukera izaten baitute.

---

#### LH6- MUGIKORREN ERABILERAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Gehienok dakizuen bezala, gure Ikastolan duela 3 urte mugikorren erabileraren inguruan guraso-ekimena martxan jarri genuen.

Geroztik, hainbat ekitaldi eta jarduera antolatu izan ditugu pantailen erabilera eta eraginaren inguruan hausnarketa bultzatu, elkarbanatu eta erabakiak hartzeko. Momentu honetan, zuengana zuzentzen gara, elkartzeko proposamena eginaz.

Kontu honekin nola zaudeten entzutea gustatuko litzaziguke eta gure esku dagoenean lagundu. Era berean, beste ikastetxe batzuetan ekimenak izan duen oihartzuna eta esperientzia zuekin elkarbanatzea interesgarria iruditzen zaigu.

Guzti honi buruz hitz egiteko honako deialdia luzatzen dizuegu Ekainak 7, asteartea, arratsaldeko 18:00-19:00-tara, ikastolako Hizkuntza gelan.

---

## DBH OHARRAK

### DBH

#### 3. EBALUAZIOKO NOTAK

Gaur ostirala, ekainaren 3, 17:00etan DBHko 3. ebaluazioko notak aktibatuko dira Alexian.

### DBH2

#### IRTEERA GETARIARA

<b>Maila</b>	DBH2	Prezioa	-----
<b>Nora</b>	Getaria	Irteera ordua	8:20
<b>Noiz</b>	Ekainak 10	Itzulera ordua	12:20
<b>Garraioa</b>	-----		
<b>Aipatzekoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hamaiketakoa eraman dezatela</li></ul>		

### DBH3

#### ORIORA IRTEERA (KAIK)

<b>Maila</b>	DBH3	Prezioa	20,31 €
<b>Nora</b>	Orio	Irteera ordua	8:38
<b>Noiz</b>	Ekainak 10	Itzulera ordua	14:00-14:30
<b>Garraioa</b>	Trena		
<b>Aipatzekoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Mugi txartela</li><li>• Hamaiketakoa eta bazkaria eraman dezatela</li></ul>		

\*Ekaineko erreziboarekin batera kobratuko da.

## BESTELAKO OHARRAK

### HIZTUN EKOLOGISTAREN DEKALOGOA

ZER DUTE ESATEKO ZARAUZTARREK HIZKUNTZAREN INGURUAN?

[BIDEOA IKUSI](#)

---

### ERAZTUN BERDE URDINA

Ekaineko programazioa: [linka](#)

Ekintza batzuk helduei zuzenduta daude, beste batzuk, nerabeentzat haur eta familientzat izango dira.

Bestalde, ekintza hauen inguruko albisteak jaso nahi izanez gero Eratzun Berde Urdinaren buletinean harpidetza egiteko aukera zabaldu dugu, hemen duzue esteka:

<http://labur.eus/harpidetza>

---

Besterik gabe, agur bero bat.  
ZUZENDARITZA

## SALBATORE MITXELENA IKASTOLA

Maria Etxe-txiki kalea 14,  
20800 Zarautz  
Tlf: 943 831 752

[zarautz@ikastola.eus](mailto:zarautz@ikastola.eus)



[zarauzkoikastola.eus](http://zarauzkoikastola.eus)